


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

204n. zenbakia
zezeilla/otsaila 1996



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILE



ESTIBALIZ'KO AMA

- ARABARREN ZAINDARIA
- ASARREAK BARETZEKO TOKIA
- ARRIAGA'KO ANAIDIA

TXETXENDARRAK GOGOAN

ABERRIEN ALDIA

Aspaldion, batez be Errusi'ko agintaritza gogorra galdu zanetik eta argiago Berlin'go ormea bota Alemania osoa bat egin zanetik, aberrien aldia etorri da mundura.

Batzuk or arrisku bat ikusten dabe, eta ez dagoz oker. Lo dagoan txakurra itxartzea beti da arriskua, bardin lo edo zapalduta dagozan erriak konortertzea.

Baiña zer da txarrako izkanbillak zortzea ala erriak urterik urtera ilten ikustea?

Bakea ez da ain gatxa: errien nortasuna aintzat artzea da naikoa, eta ori lortzen ez ba'da ez dagiala iñok esan aberri txikien errua danik, ori laterri aundi ta zapaltzailleen errua da.

Eurak egin bear dabe bakea, eurak bete bear dabe orretarako lenengo baldintza, munduko erri guztien eskubideen artean dagoan baldintza: Aberri txikien nortasuna aintzat artzea.

Aberrien aldi au, bere arrisku ta guzti, pozezko ta itxaropenezko aldia dogu.

GIZA-ESKUBIDEAK

Gaur giza-eskubideak sarritan aitatzen dira, eta beteteko alegiña egin be bai, baiña banakako norkien arloan. Aberrien aldi onetan, eskubide orreik gorago-ko mailla batera jaso nai dira, errien eskubideak billatzea da bear dana.

Eta errien eskubideen arlo onetan ba-dago zeregiñik naikoa. Laterri aundiak ez dabe nai ezergaitik be eurren lurraldea zatitzerik, ez Europa'n eta ez beste leku askotan.

Baiña giza-eskubideak ori eskatu ezkeru, isil-isillik onartu bear leukee.

Ori izan da Kanada'n bakez agertu dan arazoa eta askatasun-zaleak oraingoz galdu egin dabe. Ez da ezer jazo. Bakea aurrera be.

Eta zergaitik ori ez da egiten Europa'ko laterrien barruan diran aberrietan? Zeren bildurra dago?

Bakoitxaren eskubideen arloan egin da lan, naizta dana lortu ez, baiña errien eskubideen ikasgaia orain-

diño azterketa egin barik dago. Onartzea lortzeko dagoan ikaskaia da.

BAKERAKO BIDEA

Errien eskubideak dakazan arazoak argitzen ez diran artean, ez da izango munduan bakerik. Gaur emen, biar an, etzi arago, beti izango dira gudak, gauzak berbaz eta autarkiz konpontzerik nai ez dalako.

Aberriak diran lakoak aintzat artu bear dira, euren nortasuna kontuan izan bear da.

Geiago oraindiño. Euren jakintza, erri-nortasuna eta ekonomia, eurak politikarako dauken nortasuna indartzen alegiña egin bear dabe laterriak eta eurak eskubide osoa emon autarkien bidez nai daben jaurketa-bidea artzeko.

Ori barik ez dago bakerako biderik eta bakea egiten ba'da be, ez da iraunkorra izango.

GURE ERRIA

Munduko errien artean dago Euskalerria, Iparraldea eta Egoaldea erri bat dirala, Euskalerrri lez Napparroa barru dala. Eta ori aintzat artu bear da bakea lortzea nai ba'da.

Eta ez erri-nortasuna aintzat artu beste barik: Erri zoritxarreko oneri laguntza emon, alkartu daiten, bere berezitasunak indartu dagizan eta beretzat nai dauan aginpidea aukeratu dagian, ekonomia bideratu dagian.

Baiña olakorik ez da entzun nai ez Frantze-aldea eta ez España-aldean. Gure eskubideak ez dira onartzen, erria garala be ez dabe sinisten. Eta orrelan ez dago bakerik, ez beintzat bake onik, ez bake iraunkorrik.

Eta zergaitik ez dabe ori onartzen? Zerbait galtzeko bildurra daukelako. Ez gure onagaitik. Batzutan maite gaituela esaten dabe eta eurakaz nai gaitue, baiña urrengoan txarrak garala entzuten dogu. Ez batari eta ez besteai ez dautsagu jaramonik egin bear. Naikoa da gure erriaren eskubideak aintzat artzea.

EUSKALDUNEN AZTARNAK (II)

EUSKALDUN EIZTARIA, ARTZAI

EUSKALDUN EIZTARIA, ARTZAI

– Millaka urteetan aurrera, gure aurrekoek eizeetik bizi ziran eta eize ori arrapatzeko egiten zituzten beuren aztikeriak kobeezulo illunetan. Eizea era askotakoa zan; aide batetik aundiak mamuta eta elefantearen antzekoak, txikiagoak dira rinozerontea leoia, artza eta ainbat geiago. Oso ausartia bear zan oieri aurpegi emateko; baña, bein aztikeriak egin ezker, animalia euren eskuetan zegoen.

– Nik auxe esango dizut: ori zozokeri bat besterik ez dala.

– Eta, ori ez dala zozkeri bat, erantzungo dizut nik; eurak aztikerietan sinismen itsua zutenez, indar-iturri zala eurentzat.

Koba-ormeetan marraztuta dauden animalia eta pisti guziak zeuden geure mendi eta ibarretan. Oien arteko bat, mamut illeduna zan. Ruffignac'eko leizean eun mamut-illedun irudi daude, Dordonia aldean...

– Baña, ez al da mamuta Suberiako izotzen artekoa?

– Bai, an topa izan dute historia aurreko izoztutako mamut bat. Mamut ori gure artean bizi izan garaian, izotzak emen zeuden, geure lurraldea zan Siberia'ren antzekoa, orregaitik zebiltzan emen mamut illedunak, eta orretxegaitik arkitu izan dira renoen irudiak eta ezurrak geure kobeetan (Aia'ko Altxerri kobeetan dago reño irudi bat). Eguraldian bigundu zanean Pirenee mendietan, orduan aide egin zuten mamutak eta renoak Ifar-alderuntz; eurokin batera, baita euren eiztariak ere...


– Orrelako gauzarik ez det sekulan entzun.

– Ez da neuk ere, baña orrelakoak esatea ez da sentsunbako aldrebeskeri bat. Gaur-egun badira Ifar-aldean renoekin batera eta reno oita-

tik bizi diran erriak batetik bestera eurokin joanez. Gaur ala ba'da, orduan areago eta renoak ifarrera joan ba'zitzaien, eurok ere ara joan bear. Iturriko ura baño garbiago. Ori begi-bistan dago. Renoa joan eta oreiña etorri; eta oreñakin batera, basauntza. Oreiña, baso zabal lauetan eta basauntza, malkorretan.

– Oreiña eta basauntzak bakarrik?

– Baita zezen, bisonte, zaldi eta abar ere. Kobetan utzitako ezurretatik auxen ikusten da: aragi geiena zezen-bei eta oreiñak ematen zutela; baita basauntz eta basurdeak ere... Jan, animalia guztietatik jaten zuten; zaldia, ordea, ez zitzaien asko gustatzen... Lurrak berez sortzen zitun emaitza guztiak jasotzen zituzten; baita erreka eta ibaietan zeuden arraiñ-mota guztiak: izoki, amorrain, platusa, aingera eta abar. Anapatzaille utsak ziran lenengo millaka urteetan.



naiz eta, oraindik ere, eizera joan oreiñ eta basauntzen atzetik, ez bait zaio irrika ori gaur bertan be galdu... Okelea jateko, ordea, ez du basorik baso eta landarik landa ibilli bear; naikoa du artarako, kortan sartzea... Orra zer aide dagoen Paleolitikotik Neolitikora.

—Eta, aldi onetan zertarako da lengo aztikeri zaarra?

—Ezertarako ez da, baña, geure burutik ez degu era bat aaztu. Eizerako ona zan aztikeria; jan-bide berriak eizetik kanpo sortu direnez, aztikeria be baztartuta gelditu da; ez du balio ez artzantza ez nekazaritzarako. Zerk balio du? Eguzkiaren ekiñaldia eta euriaren eraso; orra bi gauza bearrezkoa belarra eta landarak sortzeko: belarretatik aragia eta landaretatik ogia... Eguzkiarekin illargia; euriarekin errekek eta ibaiak... Eguzkia eta ortzia, ortziakin tximistak... Euria eta laiñoak, lañoekin trumoiak, txingorra eta ur-jolak... Arbolak eta basoak... Orra beste mundu berri bat sortu...

—Beia, urdea, auntza... ardirik ez dezu aitatu.

—Ardiarena beste arazo bat da. Izenak eurak be zer-edo-zer adierazten digute: grekeraz Ardia Arnia esaten da eta Aria, latinez, Aries. Or dituzu bi izen kanpotar. Barandiaran'go Joxe Mlel jaunak dionez, ardia kanpotik etorri zan ezita; etorri ere, bere izenarekin etorri zan. Astoari buruz, ala moduz esan bear: Errioxa'tik sartu zan gurera Kelta garaian... Beste abere guztiak geure mendietan ezitakoak dira, nola bei ala zaldi, txerri, auntz eta txakur... Auek ez dira ezita gero kanpotik etorriak, emen bertan ezitakoak baizik.

—Eta, zer okela jaten zuten geure aurrekoek?

—Kobeetan eurak utzitako jan-ondakiñetatik auxen nabari da: ezurrik geienak auntz-ardienak dira, ondoren datoz beienak eta azkenik txerrienak... Auek dira ilulluko abereenak eta mediko eizarenak, berriz, auek: basauntza eta oreiñarenak... Ardi, auntz eta basauntzak ezurkopuru aundiago ematen dute, bei eta oreiñak baño; alaz ere, bei eta oreiñen ezurrek aragi



geiago dute; ezur gutxiagoetan aragi geiago. Beraz, jaten zuten okelarik geiena, beiena zan; gero dator ardi eta auntzena eta ondoren txerriak... Neurri orrek jarraitzen du gizaldietan zear gaurdaño geure gaur eguneko arategietan. Orretan ez gera asko aldatu.

—Eta, eizetik, zer?

—Neolitikoan oreiña eta basantza ziran nagusi; basauntzak ezur geiago eta aragi gutxiago oreiñak baiño. Baso eta zelaietan, oreiña eta mendi malkorretan, basauntza; gaur ere berdintsu jarraitzen du; gutxiago daudela, besterik ez. Eize aundiara joaten diranak gure artean, oreiñetan eta basaurdetan joan oi dira eta arazo onetan bai, badago aldaketarik... Gutxitu egin dirala aspaldian.

—Nun bizi ziran?

—Tokirik onenak asieratik koba-zuloak ziran: seguruenak, neguan bero eta udaran ots, ura bertan zutela... Andik kanpora, aitzen aterpeetan eta babesean, edo bestela zumezko eta egurrezko borda eta txaboletan gurre mendietan artzaiak bizi izan diran antzera. Marrazkidun leizeak elizatxoak ziran eta aztia bere apaiza; baña, jendearen egoitzak ere bazeuden koba-zuloak. Borda eta txabolen arrastoak galdu dira, berez ustelkorrak ziralako bai zume bai egun-a... Gerora, histori barruan, etorriko dira orma-etxeak eta teilla-etxeak; aurrekoak tzeillaren ordeuz lur-zotalak eta errizko ormen ordea, buztiña tartean zuten zumea edo egurra...

GABONAK EUSKAL ERRIAN

Gabonak, Eguberri-jaiak. Izen auek burutapen goxoak ekartzen dizkigute.

Urtean zear etxeako alkar ikusteko astirik gabe ibiltzen ba'gera ere, urte-garai onetan, nolabait alkarrengana biltzen gera.

Egun auetan, gure lantokietan jaiak artzen ditugu; ikasleak oporretan izaten gera, eta abar.

Gabon eta Eguberri-garaian, giroak eta eguraldiak beren aldetik pixkat laguntzen ba'digute, barru-giro ederrean, senideok gurasoen inguruan, txolarte ederrik izan oi dugu.

Baiñan, Eguberri-garai au nundikakoa eta noiztikakoa da?

Kristautasuna zabaldu zan ezkeroztik, Egeberri eta bere ondorengo egunak, Berri Onaren esanetara kutsatu ziran: Kristo jaio zan, aska batean otzak dardarka gaiñera; Jainkoaren Semea zan eta, urruti bizi ziran Azti (Mago) batzuek, izar berezi bati jarraiki, bordatxoraiño iritxi, ta gurtu ondoren, opariak eskeiñi zizkioten, eta abar.

Baiñan, egia esan, Kristoren jaiotza zein urte-garaitan izan zan ez zaigu esaten, (Kristo jaio zanean otz egiten zuela, ta artzaiak mendian izarpean zeudela), nun jaio zan bakarrik baizik.

Eta ospakizun au Elizak urte-garai onetan zergatik jarri ote zuen?

* * *

Euskal erria zortzigarren gizaldi aldera kristautu zala esaten dute.

Ordura arte, noski, euskaldunak norbaitengan edo zerbaitengan siñistuko zuten bada?

Bai orixe, euskaldunak siñistunak ziran, beren Jainkoa eguzkia zan eta eguzkia gurtzen zuten.

Urtean zear, eguzkiaren omenez zenbait jai ospatzen zituzten: Uda-mugan (Solsticio de verano) bat, eta negu-mugan (solsticio de invierno) bestea. Esan bezela, euskaldunak beren jainkoa goraltzen saiatzen ziran.

Kristautasuna eta munduan ordurarte zeuden beste sinismenak alkarren aurkakoak ziran.

Beraz, kristautasuna erri arrotzetara irixten zanean, erri aiek ordura arte bizi zituzten sinistekin zer egin?

Arazoa egun batetik bestera zuzentzeko baiño geiago zan.

Garai artan kristau-erantzukizuna zutenek ziur asko beltzak ikusi bearke zituzten, noski, baiñan arazoari irtenbide ona arkitu zioten: esate baterako, euskaldunek ordurarte zituzten sinistek erabat arbuaiatu edo gaitzetsi bearrean, euskal erriari ordura arte zituan oituretan jarraitzeko bide eman zitzaion.

Eta Eguberriak gaur duten esanaia izan aurretik, euskal errian, urte-garai onetan jairik ospatzen ote zan bada?

Bai, ain zuzen, negu-buru edo negu-mugako jaiak ospatzen ziran. Beraz, jaiei len ematen zitzaien kutsua aldatu. Eguzkiaren ordezkristauen Jainkoa sartu, eta kito.

Len esan bezela, aldaketa au etzan (ez zan) ain erreza gertatuko, baiñan, pixkanaka, kristautasuna sendotzen joan zan bezela, arazoak gairitu al izan ziran.
* * *

Gaur egun (gure egunetan), Eguberri-garaian Kristoren jaiotzarekin zer ikusirik ez daukan izen bat aipatzen dugu euskaldunok: Olentzero.

Urte-garai onetan, jai auetan gizandi (personaje) au aipatzea, euskal erria kristautu baiño lenagoko oituren arrasto bat da.

Olentzero buru aundia
entendimentuz jantzia
bart arratsian edan omen du
host arruako sagia.

edo beste au:

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentziyuarekin ikatz egitera.
Adu zuenian Jesus jaio zala
laisterka etorri zan berri ematera.

Adibide auetan konturatuko zerate: Olentzero, berez, Kristoren jaiotzarekin zer ikusi gutxiko gizona da, alako zati batean Kristoren jaiotza aitatzen duen arren.
* * *

Negu-muga onetan, euskaldunek urte berriaren antzeko zerbait ere egiten zuten. Ain zuzen, orain Gabon eguna ospatzen dugun egunean: etxeak sua berritzen zuten.

Bai, lengo euskaldunentzat, Abenduaren 24an urte berria asten zan. Orretarako Abenduaren 23a urte-zar bezela zan, eta sutan zeukaten enbor (tronco) zarra kendu, ta "urte-berri, su berri", enbor berria sartzen zuten; eta sutako autsa ukuilluan zabaltzen (ekintza onek ere bere esanaia ba-zuan-eta).

Beraz, gaur egun ospatzen ditugun Gabon, Eguberri, Urte zar, Urte Berri ta abar, garai bateko euskaldunek ospatzen zituzten jaien ospakizunak dira, kristau-kutsua emanda, noski.

Ludiko beste errietan ere, kristautasuna zabaltzen zi-joan bezela, antzeko aldaketak egin ziran.

URRESTARAZU'tar Andoni (+)

Gauregunotan, otzaragintza onen arerioa, lantegietan langailuen bidez, eta gaztain-zumitzak ez diran beste lan-gaiakaz egiten dira. Olan ba, gure otzaragilleak beartuak izan dira bide barriak artzeko, betiko gaztain-zumitzak erabilten dituala, baita oiko tresnak be, au da: aiotza, aiztoa, eztena, azia ta egurrezko maillua, Ona emen adibide batzuk: ate-ordeak (biomboak), bonbiltegiak (botilleroak), aterkin edo euritako ontziak, erratilluak etabat. Zorionsua benetan, gaurko barrikuntzen aurrean beste bideak aurkitzen dauzana, antxiñako lan-gaiak eta tresnak erabiliz. lan-mota ori bere ogibidea izaten jarraitu dagian.

ARTZAIÑA TA BERE BIZIMODUA

ARTZAIÑTZA MOTAK - Euskalerrian lau artzaintza mota aurkitu dagikeguz.

1. Alderai Artzaintza.
2. Barruti Artzaintza.
3. Trasterminantekoa.
4. Naasitako Artzaintza.

Lenengoa Auñamendi ibarretako artzaiñak egiten dabena da. Erronkari, Saraitzu, Urraul, Aezkoa, eta Errromanzakoak dira mota au darabilenak. Bardenas'etara doazen artalde oneik, eun eta berrogei kilometro baiño geiago zearkatzen dabez. Bardenas'etara joateko eskubiderik ez dabez beste artaldeek, Erriberako'ko errietan kokatzen dira, bear dabez alaguneak edo larreak alokatuz.

Bigarren motako artzaintza, Euzkadi'ko Mendilerro nagusietan egiten da, au da: Aralar, Alzania, Andia, Urbasa, Entzia, Gorbeia etabar. Artzain oneik egiten daben alderraikuntza, lengoak baiño askoz laburragoak dira, gitxi gora-beera 50 kilometrokoa. Neguan, Bizkai ta Gipuzkoa'ko itsasaldera edo ibarretara jatxiten dira. Artalde oneik alderraien baiño txikiagoak dira, baita ardiak beste endakoa be. Erriberakoak "Rasa Nabarra"koak dira, eta bigarren oneik, ostera, "Latxa"koak.

Irugarren motakoa, Naparroa'ko erdialdean erabillitakoa da, Auñamendi'ko Erdiko ta Enibera'ko artzaiñek egiten dabena. Artzaiña, bere ardiekin erri-mendietan alokatutako larreetan ibiltzen da; baiña udean, goi mendietako mendilerrotara joan-bearrean, bere ibarreko alagunetan geratzen da.

Azken motakoak, nekazaritza, gintza, eta artzaintza aldizkaten dabez. Onein artzaintza, murrizta edo urria da. Erdi artzaiñok euren artaldea noizbeinka zaintzen dabe. Erriko mendien alagunetan itxiten dabez ardiak eta negu aldean, baserritik ur dagoan ardi-bordatarara ekarten dabez. Artalde oneik, berrogei edo berrogei ta amar burukoak dira, "Latxa" endakoa, izan be. "Etxe-ardiak esaten dausie, eta etxerako gaztaiak egiteko ta okelerako erabilaten dira. Artzaintza mota au geien zabaldua dagozan lurraldeak, oneixek dira: Baztan, Ultzama, Basaburua, Odieta, Anua, Atez, eta Txulapain, Naparra'n. Gipuzkoa'n, Arno, Izarraitz, Ernio ta Beterri'n. Bizkaia'n, Oiz, Anboto ta Durangoaldea'n. Baita mendilerroetatik aldenduta dagozan, Lapurdi, Bena-barra, ta Araba'ko barruti batzuk.

ARTZAIÑEN EGINKIZUÑAK

Udabarria asten danean, Artzaintza Alderraia neguteko iarrak itziteko gertatzen da. Ona emen, zelan diardue Bardenas'etako egotaldian: goizeko 6,30tan jagita, txabolan sua piztu, eta gosalduta gero, ondoko eskorta estaldutara doa, emengo

arkaztak eta bildotsak pentzuz janariteko, eta jarraian, alboko beste eskorta aldatzen ditu. Gero, kanpoan gaba emon daben ardiak alatzera eroaten ditu. Ardi oneik ez dabe gatzaren bearrik, Bardenas'etako lurra naikoa gatzatuak diralako. Bildotsen eskortako atea itxita gero, janari batzuk zorrora sartu, eta badoa ardiekin oiko alagunetara. Bardenas'etan, ereintza lekutan izan ezik, nongura alatu daitezke ardiak.

Artaldea zaintzeko ta agintzeko erabillitako txakurrak, "Labrit" endakoa dira geienbat, txistuka ta oiuka agindutakoak.

Illunabarrean Artzaiña sarobera biurtzen da, eta ardi amak eskortara sartzen ditu, bildotsak esnez janaritu dagiezan. Apalduta gero, 10'tan inguru artzaiña lotara doa.

Iru illabeteko diranean, bildotsai buztana moztuten yake. Ekintza oneri, "Escodar" deritxoe. ARTalde oneik, Orrilla'ren erdi aldean, Bardenas'etako larradiak itziten dabez, udako alagunetara joateko. Alderai-bidea edo "Cañada" bost egunetan inguru egiten dabe. Bardenas'etara joateko bide beratik igoten dira. Artaldearen aurretik, gidari edo irasko, au da, irendutako aari batzuk zintzarriak jotzen doaz. Onein atzetik, artzaiña, gero taldea ta txakurrak. Askotan, artzaiñak beor bat darabil bere gauzak lorratzeko.

Gauregun, artzain geienek ez dabe alderai-biderik erabilten, ardienezko nekagarria dalako, eta augaitik kamioiak ustiatzen dabez.

Bagilla'n edo Garagarrilla'n aariak askatzen dabez, ardiak estaldu dagiezan. Ardiok Urtarrilla inguruan erditzen dabe, au da, Bardenas'etan dagozanean. Goiko alagunetara elduta, artzaiñak bere txabola egiten dau, eta emen darrai Azaroan agertzen diran lenengo edurra arte.

Artzain onein janzkieraa aldatzen doa. Len, kapusai edo txarresa erabilten. Orain, oso aspaldikoak diran irasko narrazio "espalderoak" jantziten dabez. Praka urdiñak, eta txapela buruan. Len egaldun kapelak erabillezan. Eskuan makil zuzen bat, eta edurra danean, zurezko "zata" izeneko ol-zatiak. Orain, Barruti-artzaintzari buruz jardungo dogu.

Egusentian jagita, gosari ariña artu ostean, artzaiñak ardiak batu, eta eskortara sartuta, jatsiten dauz, eta gero, bildutako esneaz gaztaingintzari emoten dausio. Lan au, geroago azalduko dogu. Jaisketaren ondoren, ardiak oiko alagunetara eroanda, sarobera biurtzen da.

Emen, sutarako eguna moztu, txabola txukundu, eta geisorik dagozan ardiak zaintzen ditu. Eginkizun oneik amaituta, bazkaria, eta jarraian, biagoa, edo bazkalosteko loaldi laburra. Jagita, gaztaidegian dagozan gaztaiak bira emon, eta beste lan arruntak egiten ditu. Illunabarrean, ardiak billa doa, eta eskortara dakarrez, barriro be jatsiteko. Orain, beste gaztai batzuk egin, eta apalduta gero, amaikak inguruan, oeratzen da. Gaztaiak egiteko sasoia, Garagarrilla'ren (Uztaila'ren) erdirantza amaitzen da.

Badator udagoia, ete lenengo otzak agertzen diranean, edurra asi aurretik, artzaiña bere baserrira biurtzen da, eta emen egun batzuk emonda gero, oiko bideetatik itsasaldeko bere betiko lekura doa. Sarri askotan, utsik dagozan basetxeak akuratzen ditu, eta olan bere artaldea kortara sartzen dau.

Bildotsak Urtarrilla'z gero jaioten dira. Orduan oso arazopetuta bizi da artzaiña. Askotan ardiai erditzen lagundu bear

ESTAK

itoteko zorian, edo-ta ardia estua danean. Badira kume jaiobarriak onartzen ez daben amak. Ardi oneiri, "Gatxitxie" esaten yake, eta ama ta kumea artuta, artzaiñak artaldetik urruntzen ditu. Bestetan, ardia geisorik dagoalako, edo bedar-txarren bat

gurintxu batetik ataraten da. Badira be, gizonaren eskuz egiña, saltzen dana.

Gatzakia, ur epel pixka bataz naasten da, eta abatzara irazten dan esnari, geitzen yako. Gatzatuaren bero maillak 36 koa da. Orretarako, bildutako esnea berotu bear da, gauza en'aza dana, metalezko ontziak erabilten diranean. Leen, zurezko ontziak erabilten ziranean, artzaiñek "esne-arriak" erabilten ebezan, "ofita" deitutakoak. Arriok sutan ipinten ziran, eta ondo berotuta, esnetara sartzen ziran, esnea irakiten asten zala beingoan. Erabilliareren-erabillez, ontzi oneiri, eperdia erretzen yaken.

Abatzara botatako gatzakia ondo zabaldu daiten, malatx (batidora) bat erabilten da, eta ondo naastuta gero, ozpel baten ipinten da. Andik ordu erdira -edo, mamia barrero eragiten da, eta onen ostean, gazura ta matoia banatzen dira. Sortutako gazura, txarriak loditzeko erabilten dau artzaiñak, eta jaisketa-sasoia amaitzen danean, txarriak saltzen ditu.

Matoia, ontziaren beekaldean batzen da gai zuria da. Orduan zatitzen da, eta abatza baten gainean "txurka" izeneko zulodun ol-zatia jarrita, onen gainean "zimitza" izeneko metalezko ontzi batera matoia sartzen da. Zimitza au zuloz josita dago, eta matoiak berez galdutako gazura beeko abatzara jausten da. Jarraian, matoia zimitzatik atarata, eun baten biltzen da, eta barrero be zimitzara sartu ondoren. gainean zurezko txali bat ipiñita, zapagaillu baten bidez zapaltzen da, eta amabi orduz egonda gero azala leundu dakion, gaztaia gaztaidegiko apaletan lagaten da. Leku onetan, gaztaia onduten da, egotaldi au garrantzi andikoa izanik. Asiera baten, gaztai sartu-barria beeko apaletan ipinten da, baiña gaztai barriak etorri-ala, goikoetara aldatzen da, bidebatez bira emoten yakozala.

Bero-aldiak eta ego-aizea batez be oso kaltegarriak dira onduketarako. Ego-aizeak anditu ta ler egiten ditu gaztaiak. Au jazo ez daiten, gela onek iparralderantza leio txiki bat izaten dau. Gaztai batzuk. esaterako Idiazabal motakoari kearen txastamena emoten yako, eta au iortzeko, gela itxi bateko gaztaiak keaz inguratzen yake. Sorugaiñeko burnizko zafia baten ezpalakaz ta rrakaz ke egiten da. Ardurakoa da, dalako su ori ke asko atara dagiala, baiña garrak sortu barik.

Bost edo sei litro ardi-esnez kilo bateko gaztaia lortu daiteke, kontuan arturik, baiña, goi aldeko bedartzetan alatutako ardiek esne aberatsagoa emoten dabela, eta onein emoitza, beraz, andia-goa da.

Olan sortzen dira, saltokietan ikusten doguzan gaztaiak. Mendiko bordatan edo sarobetan egiten dira ain izen andiko gure gaztai gozo-gozoak, munduko gaztai onenai iñongo zor ez dauksien, Urbia, Idiazabal, eta Gorbeia'ko gaztai bikain-bikaiñak.

Mamia edo gatzatua egiteko, esnea irakin eta gero, epeltzen itxiten da 36 bero-maillataraiño, eta orduan gatzakia botaten yako, eta oztu daiten lagaten da gero.

Ardiakandik ataraten dan beste gai bat artulea da. "Latxa" ardiak, Yon Deunetik Kepa Deunararte moztu egiten dira, artzaiñak berak egiten dauan eginkizuna izanik, artazi andi batzuen bidez. Orretarako, ardia anak lotuta lurrean etzanda jarten dau, eta moztutako artulea zorrotan gordeten dau. Oraingo artulearen salsaria gitxitu da zearo, azken aldiotan kimi-gai asko jantzigin-tzarako erabilten dalako.

Azkenean, ilten diran ardien narrua. kanpoan legortu daiten ipinten dau artzaiñak, eta gero narrukilariai saltzen dautse.

AMAIA

ZUBIRI'tar INAKI

ESKU LANA

Euskaldunaren bizimodua ez zan ez txantxetakoa, ume arotik asi ta aurrera ba-doa irabaztera; bizi nai ba zan, Ian egin bear nunbaiten, giza erara, munitil koskorrak ganadu zaintzen edo beste era batera.

Gazte ta nausi, era askotara, ebiltzan esku lanean. zugatz iñauten, egurrak batzen, al zan era onenean; beste batzuek laietan gogor lurra landuterakoan, eta azgati erpillak arto ereite sasoian.

PAULIN



EUSKAL ASTEA

Gogoangarria izan zan atzo Zubiri'tar Iñaki idazleak egin eban itzaldia. Euskalerrian izan diran eta gaur diran esku-lan-gintza-arloko trebetasunak agertu euskuzan.

Gaur Olazar'tar Martin izango da izlaria. Martin ZER aldizkariaren zuzendaria dogu eta aldizkari onek 200 zenbaki argitaratu dauz 18 urtetan. Bizkaieraz agertzen da aldizkari au geiena eta urtero agertzen dauz ama ka ale.

Aldizkari orretan agertu diran gaien artean, Martin'ek Lauaxeta'ren azken-naia eta idazkiak idazpuru dala Ian batzuk argitaratu ebazan eta orrei buruz egingo dau gaurko berbaldia.

Lauaxeta idazle eta olerkari aundia Gasteiz'en il eben, baiña ilgo eben aurreko egunetan eta orduetan idazteko aukera izan eban eta azken-nai edo "testamentu" bat idatzi eban, baita azken-orduko eskutitz batzuk be. Arazo ori izango da biarko itzaldiaren gaia.

Mungia'n bizi izan zan, Laukiniz'en jaioa izan arren, Lauaxeta eta beraganako zaletasuna abestuko dau bertsoz berrogeita ta amar urtetik gora Mungia-n daroazan Solozabal'dar Paulin olerkariak.

Dei berezi bat egiten dautsegu gure bazkideai eta Lauaxeta'ren zale diranai gaurko berbaldira. Asko lagunduko dautse gure idazle aundi au obeto ezagutzeko.

EUSKERAZALEAK
("DEIA" N AGERTUA)

Muñube berbetan asi zan eta, beste gauza batzuen artean, Larrola osagileak obiarena esan eutsola autortu eban. Karmentxogaz izan eban artuemona be azaldu eutsonean, baita Egurmendi gazteagaz eukan ezinikusi antzeko edo artuemon txatxarra be, au Garaidiri agirian itziaz.

Antza, aundiki arentzako adiskidetzat naikoa ez ei zan Muñube, onek inoanetik. Gitxitzat beti artu izan ebalako, aurki. Gero osabeak itzi eutsonean eskutitzearena eutsonean Garaidiri.

Bertan, Egurmendi zaarrak Pagodiri jazotakoa inoiz be ez aitatzeko, arrern eskatzen ei eutsonean bere osabeari. Muñuberen osabeak jakin baekian Pagodiren barri, bai orixe! Egurmenditarrenganako susmo txarra ei eukan Muñubek.

Danon begien aurrean egoki eta on azaldu baziran be, atzetik sano kakaztuta egozana ziur-ziur egoala adierazoz gura izaten eban Muñubek. Obiko andrea eta Pagodi, biak garbitu ebezana ziur be ziur egoan Muñube, inotsonetik, beintzat.

Larrolarena jakin ebanean, bada, Muñube Karmentxoren etxera joan zan eta arengandik ebatzi ei eban.

Egurmendiren bildur, nonbait, onek Karmentxo eta bere gurasoei zer egin eien bildur, aide egin, izan be.

Garaidik, entzuten egoan bitartean, Muñubek guzurretan ala benetan ziarduan erabilan buruan.

Pagodiren orratza Begoñari bere aitak oparitu eutsola agertu eutsonean Muñubek eta au egiazat eukala esanean eutsonean Garaidiri. Gurzurra esan baetsonean, Begoña naastean ez sartzeko izan ei zan guztia.

Ustebakoan, Muñubek euki eikean erreazinoa jakin guran, Egurmendi une atan bere gurasoen etxean egoala blausta baten esanean eutsonean Garaidik.

Muñube, orduan, sutu egin zan asarrez. Bere gurasoen biziak jokoan egon eitekezan esanean, oinestu lez joan zan etxeko mailadietan gora, gurasoenera, ainean zuzen. Egurmendi, ordurako, Muñuberen gurasoenetik urtenda egoan, baina.

Bere aitak Muñube ikusi bestean laster zarataka asi jakon, mundu guztia bere atzetik itaunka etorri jakela eta.

Non sartu zan eta non eban itaundu eutsonean semeari, orrenbeste lagun bere eske egoteko. Egurmendi jauna, bera be, orduratsu artean egon zan eta.

Aitak asarre-asarre zirudian eukan seme ganorabako aregaz, nonbait.

Egurmendi, baina, ez zan euren txarrik egiteko asmatan joan, aurki. Ostera, diru mardoa ekarten, Muñube gaztearentzako, gainera.

Izan be, Urgainen berau idoro ezinik ibili zan lez, bere

gurasoen etxera joatea otu ei jakon. Antza zanez, dirutza a Egurmendi zaarrak itzi eutsonean Muñuberi, bere eriotz aurreko azken gurarian agertzen zan lez, Muñube osagileak bere bizitzan egindako mesedeen ordainez edo.

Orduan konturatu ei zan Muñube gaztea naaste-borraste aretan bere osabearen balizko eskuartzeaz.

Brastadakoan, Garaidiri esanean eta egindako guztia damutu jakon. Arean da, bere osabearen izen ona garbi izteko aaleginetan botatako guzurak esanean izana.

Baina bere egitadek iruntzietarako erakusten eban.

Urrengo egunean Garaidi Erriburutarren etxera joan zan. Ekian guaztiaren barri emon eutsonean Erriburu jaunari, guztiari buruzko bere eritxia ezagutzeko.

Erriburu bete-betea egoan Muñuberen erruaz. Joxe Jokinen ustea alakoan zan eta.

Eta, gainera, pentsaezina begitanduten jakon Egurmendi errudun izan eitekeanik. Beste aldetik, Muñube errua Egurmendiren bizkar bota guran eban. Eta au onartezina zan Erribururentzako.

Garaidiren aburuz, Joxe Jokin guztiz oker egoan bere eritxian. Aren irudikeriaren ondorioa zala begitanduten jakon.

Garaidik bere eritxiaren oinarriak apurka-apurka azaldu aalean, Erriburu bere ustea aldatuz eta Garaidik esanean eutsonean onartuz joan.

Entzundakoak entzun ondoren, atsekabetu egin zan eta etsita lotu zan Erriburu jauna. Bere emaztea il eta, gero, Pagodi be! Ezina! Ezin izan eitekean!

Garaidik, baina, Pagodi orduan zortzi urte bizirik egoala esanean eutsonean eta ez zala ogei urte leenago galdu zanean, danon usteen aurka. Au Egurmendik etxean eukan autsontzitik artutako zozpalari C-14ren bidez egindako azterketeak aditzera emoten eban.

Antza zanez, autsontzi a orduan zala zortzi urte leenago egin zana jakitera eldu zala azaldu eutsonean Erribururi.

Orduan, bada, Pagodik orduan zala zortzi urte leenago, gitxienez, bizirik egon bear eban. Olan bada, Egurmendik Pagodiri bizi ez eutsonean kendu egiztatzen zan.

Garaidik bere susmoak Pirminengan eukazala azaldu eutsonean bere lagunari. Pirminek zeozer baekiana ziur e goan Garaidi. Aurreko egun bietan Pirminen errian ikerketetan egon zala agertu eutsonean Garaidik.

Pagodi galdu zan egunetako aitamenetan, Pirmin bere jaioterrian ei egoan, oporretan edo. Baina etxeko andrea il eta morroi zintzoa etxera biurtu ez? Bera ainean morroi zintzoa bazan be?

Baina, geroago, jakitea lortu izan eban, egun aretan ez zan egon Pirmin berer jaioterrian. Bestetik, Pirminek

barik lurperatu eben, Muñube osagilearen aginduz, aurki. Emakume a Belgikatik etorri barri egoan.

(Orduan Garaidik emakume aren argazkia erakutsi eutsen. Muñubek Begoñatzat artu eban, bere emaztegiaia zalakoan. Baina, egiatan, Begoña Pagodi eta emakume aren alabea zan).

Egurmendi gaztea ez zan inoiz ezkondu. Emakume a Pagodiren emaztea izan zan eta. Egurmendi, bada, ezkonge egoan egun areetan, danok iruntzietarakoa uste izan arren.

Garaidiren berbaldia entzun ondoren eta gai orretara eldu ezker, zutundu zan Egurmendi eta azalpenak emon guran berbetan asi jaken:

– Pagodi eta biak Belgikan egozala, ango neskatxa batez maitemindu zan Pagodi. Mari eukan izena neska arek. Pagodi beragaz ezkontzekotan egoala, gudea sortu zan. Doixtarrak urreratu aalean, etxe guztia apurtu eta neba bi eta gurasoak il eutsoezan Mariri.

Aizteak doixtarren aurka gogor jokatu eban eta doixtarrak bera arrapatu ezinik eabilzanez, Mariren atzetik asi ziran. Marirentzako egoerea txartuz joian ezker, iges egitea erabagi eben irurok. Azkenean, doixtarrek aiztea atxilotu eben.

Batetik bestera ibilteko doixtarren baimena bear izaten zanez, ostuka eta ostenka ibili bear izaten eben. Beinola, ostatu baten egozala, bila eotri jakezan doixtarrak eta anka egitean Pagodi arrapatu eta atxilotu egin eben.

Egurmendi eta Mari Helbetiara elduta, ezkonbarriak zirala esan eben, inork susmo txarrik euki ez eian, eta Helbetiara igarotea jaretsi eben. Egurmendi senar-emazteak ziran!

Pagodi eta Mariren aiztearen onez senar-emazteak zirala esaten jarraitu eben.

Urgainera noiz edo noiz biurtu ziran, senar-emazte

Aal izan eben lez, beearen gainetik artu, besteengandik ostendu eta alantxe anka egitea lortu eben.

Etixeratzerakoan, zauritua ain txarto egoana ikusita eta dana isilpean eukiteko, Egurmenditarren etxean morroi egoan Pirminen laguntzea eskatzea ebatzi eben.

Pirminen zer jazoten zan Egurmendi zaarrari adierazota, onek Muñube osagile zaarrari laguntza eske deitzeko agindu eban.

Osagileak aalegin guztiak eginda be, il egin zan Pirminen arrebea. Egun beratan, Pagodi Marigaz batera Prantziara bizitzen joan zan. Bera betiko "galdu" zan egun beratan, ain zuzen.

Pirminen arrebearen gorpua izan zan, bada, Egurmendiren emaztetzat lurperatu ebena. Olan eta dana euren artean agopean gelditzeko, Egurmendiren guzurrezko emaztea tifusak jota il zala errian zabaldu eben. Eta bide batez, orduan, oraindikarren, doixtarren eskuetan atxilotuta egoan Mariren aizteari kalterik ez eragiteko.

Au askatzea lortu eben, azkenik. Beste aldetik, onetara Egurmendi gazteak bere ezkontzea guzurrezkoa zanik ez eban autortu bear izan, ez eta Elurzabaldarrek gauatan zamari-bearretan ibili ziranik be.

Garaidik, orduan, an batzartuta egozanei arazo guztiaren buruz euren isiltasuna eskatu eutsen.

Batzuk eta besteek nonorenganako susmo okerrak euki izan arren be, bein gauzak argituta eta inori kalterik ez eragiteko edo izen ona ez loitzekotan, jazokerea agopean eukiko ebela, danok, ago batez, zintzo-zintzo zin egin eben. AMAIA.

Iñaki MARTIARTU

JASAN-EZIÑA ATA BETIKO LELOA

(BAKEA)

PALESTINA

Israel eta Palestina'k euren arteko auzian ainbeste urtean irabili daben burruka ba-dirudi, zorionez, amaitzeko susmo itzarokor bat sortu dala, bitzuek gogo ona adierazi daben ezkerero.

Indarkeriaz odola isuri ta ondamentia nun-nai sortu baiño ez dabela egiten ikusirik, beste era batera jokatu bear dala erabaki eben, itun iraunkor eta on bat lortzeko asmoz.

Bakea ezin leiteke indarkerian oiñarritu. Laster edo luzeren luze, erakiñak aldatu egiten dira ta, noiz nola jokatu bear dan ezkerero, sendo finkatzen ez ba'da burruka berez agertuko da barriro.

BOSNIA

Oraintsu arte Yougoeslavia izenagaz indarrez lotuta bizi bear izan daben erri ezbarriñak, bein indarkeria ezeztu edo auldu ondoren, hereala asi ziran euren nortasuna agertzen eta burujabetza eskatzen.

Bosnio, kroata eta serviarrak guda gorri baten, batzuk bestien aurka, gogor asi ziran; baiña azkenean alperrezko odol-eriotza ta ondamentia uri ta baserri guztietan ikusirik, izkilluak itxi ta arremman-paketzaile bidea aukeratu eben.

Izan be, arazo zailla da ezin-autsizko eta danon gogoko erabaki bat artzea, baiña gauza hat argi dago: auxe dala lenengotik artu bear izan eben bidea, ainbeste ondamentia ta 250.000 eriotze gaitz sortu-arazi barik.

Norbaitek esan al-izango dau, Laterri-Batu'ko Dayton urian lortutako bakea oso korapillotsu ta ezбайдakoa dala, baiña inolaz be lau urteko guda anker bat baiño ohea ta zuzenbidezkoa izango dala uste dogu.

EIRE-LAND-KANADA

Irlandar auzia be gure artean oso ezaguna da.

Idaz-lan au ez luzatzearren, zeaztu barik itxiko dogu, baiña ez len esan barik zeozer lortzeko burrukari uko egin hear izan dau-tsoela.

Baita Kanada eta Quebec be, antziñatik dabilz onelako edo antzeko auziaz eztabaidaka.

Baiña oneik eredu onuragarri emonaz, izkilluak aide batera itxi torika ta lerkai-estandaka ibili barik, besteak baiño zentzunki lanari lotu jakozan.

Orai-egunean giro bake betean egindako erri-iritsi baten, que-bectarrak argi ta garbi adierazi eben euren naia, ta beste ainbanatuta dagozala erakutsiz.

Talde bien alkarrezko zerremanak lendik onak ez ba'ziran be, aurreantzian begiko ta lotsakorrak izango diralakoan nago.

EUZKADI

Autatutako erri ta eurei lotuta dagozan auziak, gogora dakar-gue Euskadi'n daukaguna.

Auzi guztiak ez dira bardiñak. Erri bakoitzak here berezitasun, asiera edo azterren, edesti ta naia daukiez, baiña danak norberen nortasuna aldeztu ta burujabetza lortzeko alegintzen diran ezkerero, guztien elburua askatasuna dala ezin geinke ukatu.

Euskadi'n EAJ-Eusko Alderdi Jeltzalea ortarako sortu zan, orain eun urte dirala Sabin'ek eraikita, kendutako Lege-Zarrak berreskuratzeko asmoz.

Alderdi berak ete bere enborretik sortu diran adarrak, osotzen dabe gaurko euskotar abertzaleatasuna, naizta espaiñarrak batzuei abertzale zentzudun cdo moderatsu eta besteai ertzeko edo erradikalak izendatu.

Len adi-erazi doguzan ahertzale-auziak eta bakurako artu dabezan erabakiak, guretzat eredu oso zentzundun eta oneragarri dirala, ezpai-gabeko da.

Gure artean be, gaur egunean borondate oneko euskotar guztien elburua orixe izan bear litzake: indarkeria aide batera itxi ta itzez, eztabaidaka, bake-bidea aurketzeko alegindu.

Ardanza jaunak bakea lortzeko bear-bearrekoa dala-ta, adierazpen batzuk egin ebazan bake-bide edo prozesu egoki bat gertatu al izango ba'leu, gure gizartean eragiteko.

Ogeiren bat egun geroago, Donosti'ko gotzaiñak Abendu ta Gabonetarako egiñiko gotzai-idazki baten be, darabilgun arazoari buruz, oso egokiak diran oarpen batzuk emon euskuzan.

Baiña lendakariak esandakoak ezagutu ta urrringo egunean, bertan, egunkarietan egundoko eretxipenak agertu ziran. Espaiñar alderdi danak PP, PSE, IU eta UA'k ao batez eta itz zorrotzak erabiliz, adierazpen guztiak gaitzetsi ebezan.

Alderdi guztiak eritxi bateko edo antzekuak ziran ezkerero, eredu erakusgarritzat, Rosa Diez PSE-EE'eko ordezkariena aitatu dogu: "Ezin da bake-hide edo prozesuaz itz egin, gudarik ez dago-lako".

ABERTZALEAK

Uste dogu eritxi orrek naiko argi adierazten daula alderdi espaiñar guztien gogapen eta jarrera: ziñez edo azalkez, burruka benetako ta gogorra dagola ez dabe gura ikusi.

Espaiña'ko agintariak, atzerrira doazenean laterri-arteke politikan esku-artzeko, an dagozan abertzale-auzi guztiak, inolako eragozpen barik aintzat artzen dabez.

Naizta erregea, jaurlaritzaren burua dan Gonzalez jauna, edo beste batenbat goi-maillako agintaria izan, an ikusiko doguz (esate baterako) eskua luzatuaz edo alkar besarkatuz, Yaser Arafat, Isaac Rabin edo Simon Peres izan-arren.

Beste Ickuetan indarkeria edo terrorismo ez dabe ikusten, eun millaka gizaki odoletan il-arren. Euskadi'n bai: ori, zer dala-ta?

Jazoten dana argi dago: Guk aldeztzen dogun abertzaleauzia, ondo dakigu jatorriz eta legezko dala.

Antziñatik geunkazan Lege Zarrak (Grain Burujabetza esango geunke) irrun-arrunaz kendu eskuezanak, gaur, len esan dogun bezela, berreskuratzea da gure eginbearra.

Eusko abertzale modcratsuak, eurak deitzen gaituen bezela, ozta-ozta, aintzat artzen gaitue, baiña gure zertarako edo jo-mugari buruz ekintzen ba'dogu, bereala euren ctsaitasuna agertuko daukue.

Beraz, gure zeregiñetan, argi ta garbi, alegintzen gara bakoitzean, inolako begiramen barik, sortzen da jasan-eziña eta betiko leloa: Dirudienz abertzaleak eurak, espaiñarrak, bakarrik izan leitekez.

LENDAKARIA TA BIZKAITARRAK

Bizkaia'k daukan egokitasuna euskaldun denok aitortzen dugu gogotik; mendi zabal, gallur zorrotz, ibar eder, itsas bazter zoragarriak, baita maila aundiko euskalzaleak, izar galantak, batez ere Sabino ta Azkue, batek aberria eskuratu zigun eta besteak erriaren jakintza. Danez gain, Bizkaia'k altxorrik ederrena euskara dauka. Euskara sendo ori, Bizkaitar nortasunaren oñarri, giltzarri ta amasabela da. Bizkai'ko euskara gañera Euskalerra'ko altxorra dugu. Bizkaitar euskararik gabeko Bizkai'rik ezin dugu ulertu.

Zorionez ba ditugu idazle ezagunak ugari, oso onak, langilleak, eten gabe Bizkai'ko euskara lantzen dutenak. Oietatik nere adiskide batzuek aspalditik Euskalerra osoan ondo ezagutzen dituzte, besteak gazteak izaki oraindik; Aita Shanti Onaindia, Augustin Zubikarai, Iñaki Zubiri, Paulino Solozabal, Martin Olazar, Anes Arrinda, Jon Bilbao, Asier Legarreta, Jon Malaxetxeberria eta abar. Illero ikusten ditut lanean, jo ta ke. Eskuak idazlanez beterik agertzen dire. Bizkai erriko euskara egiten dute, gai ugari ta aberatsak erabiltzen dituzte ta den denak izparringi txiki batzuetan idazten ari dire, bostgarren malleko gizonak ba'lira bezala.

Gañera ezin dugu aztu, gure idazle guzti auek aberzale amorratuak direla, oietatik batzuek aberriagatik odola ixuritakoak, mendi gallurretan, zutik etsaien aurka iraun zutenak. Gaur berriz gazte garaian bezala gartsuki Bizkai'ko erriaren euskaraz idazten ari dire.

Beste aldetik Bizkai'ko aberzaleak, izparringi

eder bat, itxuraz egokia, mardula, begientzat atsegiña argitaratzen dute, bañan orrialde gutxi eskeintzen diote euskarari. Ori esanez, DEIA izparringia daukagu gogoan. Geiena irakurtzen dutenak, betiko Bizkaitar aberzale euskaldunak ditugu. DEIA aldizkaria irakurtzen dute aberzaleak direlako... euskaldunak direlako... Bizkaitarrak direlako...

Euskal aldizkari onetan orrialde osoa euskaraz bear luke izan egunero. Orixe izango litzake berri ona Euskalerra osoarentzat. Gañera, Bizkaia'n geiena eratu dago. Orregatik, Bizkai'ko erriko izkuntzaz idazlanak agertzea, berezkoa deritzaigu. Ortxen bear lukete euki idazleen toki berexiak, erriko izkuntza aberatsa egiten duten Bizkai'ko idazle guztiz onak; Aita Shanti Onaindia, Augustin Zubikarai, Iñaki Zubiri ta abar. Idazle guztiz on auek, DEIA egunkariaren bidez argi berexia ta emaitza egokia, Bizkai osoari emango liokete. Bañan bide ortan korapilloak daude nunbait.

Gizon bat egokia iduritzen zait bide ori Bizkaitar idazle aberzalei irikitzeko; gure Lendakaria. Bidezkoa da ta bearrezkoa. Ikastolekin egin duna ain zuzen, ori bera DEIA egunkariarekin egin dezake. Gure Lendakaria, Elorriotarra da, berez Bizkaitarra. Euskalerra osoak laguntza ori eskertuko lioke. Euskalerriko kulturarentzat, garrantzi aundiko urratsa izango litzake. Ba da garaia...

LATXAGA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko ere. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gañean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.



Betidanik.

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

EDESKIA

arriba bat baeukana jakin eban eta egun beratan betiko ostendu zala esan eutsoen errian.

Ikerketak egiten jarraitzeko urrengo egunean Prantziara joateko asmoa eukala adierazo eutson Erribururi. Begoñaren jaioterrira, ain zuzen. An zer lortuko!

Garaidik bialdutako telegramea jaso eban Pirminek. Aretan Donostiako Garaidiren etxean batzeko deia zabaltzen eutson. Pirminek Bilbotik Donostiarako autobusa artu eta ara joan zan.

Bete-betea ez joian, baina, izan be, Garaidi ezezaguna ebalako. Joateko zalantzatan egon bazan be, aren telegramea bere onerako eta Pagodiren barri emoteko ei zanez, eta zio biok berarentzat naiko garrantzitsuak irudienez, joateko erabagia artu eban.

Autobusean bidean joiala, gogoetak erabilzan buruan, batzar a zer ete izango eta zer asmoz eginda ete egongo. Amabost egun leenago Urgaingo estatuan Pagodiren orratza zala eta eukitako musturjoka a burura etorri jakon. Garaidik Pagodiri buruz zer ekian bere buruan erabilan, ara-onaka.

Garaidiren etxera eldutakoan, egongelan sartu eben. Eta a ustebagea! Egurmendi jauna begira egoala aurkitu eban. Egurmendi bera be, Pirmin ikusi ebaneko, zurtz eginda Iotu zan. Berbetan asi ziran alkarregaz.

Ara zerk/nork ekarri eben alkarrerri itaunka asi ziran. Pirminek, Garaidik Pagodiren barri ekianik itaundu eutsonen, besteak, ezer ez ekianik uste ebalan erantzun eutson. Pirminek, gero, ostatuko burrukaldia aitatu eutson Egurmendiri, zeatz-meatz aitatu be.

Au entzundakoan, Egurmendi urduri jarri zan, ez eukan burruka a zala eta susmo onik eta. Pirminek onegaitik deitu eutsola uste eban bitartean, besteak, baina, Garaidik onetaz ezer ez eutsola aitatu ziurtatu eutson.

Egurmendi, ostera, bere aldetik, arduraz beterik egoan, danak txarto urteten eutson egun aretan eta: Karmentxok iges egin eutsola, Muñubegaz gainera; aita il jakola; naaste-borraste barri a zala... Zertan arduratuta egon bear baeukan euki Egurmendik, bada!

Artean, alboko beste gela baten, Muñube eta Larrola osagilea alkarregaz egozan, ordu bete leenago etorrita. Orduarako aspertuta, urduriz beterik, batak besteari errua leporatu eutsoen. Azkenean, guztiaren errudun Egurmendi bera egin eben.

Etxe beratan, beste gela baten, jangelan, ain zuzen, Garaidi bere emazteagaz, Erriburutarrak eta Txomin egozan, danak, etorteko ziran enparaukoak noiz etorriko begira egozala.

Garaidi bere saltsan, pozarren egoan. Prantziatik etorri barri zan. Barri guritsuakaz ziur azko!

Alako baten ateko txirrinak jo eban eta ara non Karmentxo bere aitagaz agertu ziran. Garaidik beste gela batera biderakutsi ebazan eta apurtxu baten itxaroteko eskatu eutsen.

Egon bearreko guztiak etorrita egozan, onezkero. Batzarra asteke ordua zan, bada!

Garaidi Amunda aita-alabengana joan zan. Batzarra asi orduko, Muñubek berari emondako aginduaren barri emon eutsen eta berak egindako ikerketen ondorioa eurei zeazteko etorriazo eutsela esan eutsen.

Amunda aita urduri egoan, Karmentxok Egurmendiri buruz entzun eikean barri txarra zala eta, ustebako eta etsipen aundiak artu eikezalako. Garaidik ondo igarri eutson eta Karmentxo batzarrera eroan bearrean, andrakaz bialdu eban.

Garaidi, orduan, gizonengana abiatu zan. Garaidi, Patxi, Erribururi eta Txomin, alboko gelan egozan eta, noiz edo noiz, Muñube eta Larrolarengana urreratu ziran.

Alkarrerri egin eutsoen agur. Danok zurtz eginda egozan, Garaidiren asmoak ez ekiezalako. Garaidik danok egozan gelatik urten eta Pirmin eta Egurmendi jaunagaz biurtu zan. An ziran batzuen eta besteen arpegikerak! Geienak arrituta baegozan be, Muñube eta Pirminek sano urduri eta asarratuta irudien.

Giro naastetsua igarri-igarrian egoan. Baina, Garaidiren berbalidia entzuteko isiltasun ozena egin zan, braustakoan egin be.

Garaidik asikerea emon eutson bere berbaldiari:

— Pagodi izenekoaren nondik norakoak eta zer jazo jakon ikertu eta argitzeko batzarkideetatik batek agindua emon eutson amabost egun arinago. Andik egun bira, Pagodiren orratza beste baten batek emon eutson, emon eutsonari Donostiako andra batek emon eutsola.

Baina, batzarkideetariko beste bat orratz a eskuratze-ko aaleginetan ibili zan, arrakastarik izan ez ebalan. Orratza Pagodirena zana jakin ebanean ikerketetan asi zan.

Arimustur oneei, bada, jarraituz, andra a Pagodiren alabea zana jakitera eldu zan, Prantziara egindako joan-etorrian, ain zuzen.

Beste aldetik, askoren ustearen aurka, Pagodiri ez eutson inork bizia kendu. Pagodik iges egin eban, Prantziara joan be. Izena aldatu, ezkondu egin eta alaba bat izan eban.

Alaba a Muñuberen andrangaia zan, aren orratza emon eutson berbera.

AMABOST EGUN URGAINEN (eta III)

Aurreko jazokerea:

Tiro batez ildako ilotza eta Pagodiren nondik nora-koak ikertzeko burubelarri ebulan Garaidi ikerlaria. Pirmin eta Muñuberen artean, susmagarririk nagusienak eurak, leenengo goraberak sortu ziran.

Beste aldetik, Egurmendi gaztea be, bere jardukerea eta Muñuberen esanak zirala eta, susmagarri biurtu zan. Garaidik, bere Bilboko lagun Patxigaz batera, iruron jarraipena burutu eban, an-or-emenka zertzelada barriak batu eta iruronganako susmoak areagutuz.

Alako beten, Muñube ostendu zan, baita Egurmendiren andragaia eta bere gurasoak be.

Matazea gero eta geiago naastuz joian.

(jarraipena)

Alan bada, Egurmendirengana berba egiten joatea erabagi eben ikertzaileok. Pagodiri buruz berba egiteko, jakina!

Egurmendiren etxera eldu, euren buruak berari aurkeztu eta ariari lotu jakozan lagun biok. Pagodi bilatzeko euren zeregina aitatu eutsoenean, ez eutsoen, baina, Egurmendiri ezelango urduritasun-dardararik susmatu be.

Bai Patxik, bai Garaidik, euron begiak Egurmendirengan zorrotz-zorrotz ipinita, bera ikertzekotan edo, bear bada, arek artegatasun edota ardurarik noiz agertuko, ez eben baina bestearengandik nasaitasunik baino besterik jaso.

Nasaitasun askoa, arena! Pagodik oparitutako autsontzia erakutsi eutsen Egurmendik.

Garaidik, eskuetan eukala, andik zartatutako zozpal txikitxu bat kendu eutson autsontziari. Biotzean eragin eutson zozpal aren begiratzeak.

Susmoa asi jakon. Zeozertan lagunduko ete eutson eta!

Egurmendik bere emazteari buruz eta au zelan il zan adierazo eutsen. Ezelako larritasunik ez aren arpegian, barriro be! Etxeko morroiengan egon eitekezan susmoak ezabatu ebazan gure lagun bien Egurmendigazko berbaldiak.

Alako baten, bere emazte izandakoaren argazkia erakutsi eutsen Egurmendik.

Garaidi, a ikustean, zur eta lur lotu zan. Begoñaren bardin-bardina! Aitza bikotxak izan baleitez lez, edota ama-alabak.

Garaidiren zurtzaldia! Egurmendiren alabea ete zan Begoña? Aiztak ziran? Ama-alabak? Aurrera berbetan jardun baeben be, ez eben baina ikustariek ezer argirik andik atara eta joan egin ziran.

Euren ikerketei buruz ez eutsoen Egurmendirik txistik be esan, jakina!

Garaidi eta Patxik, ostarurako bidean joiazala, ate ondoan otzak kikilduta edo, Larrola osagileagaz egin eben alkar.

Irurak iruretara, barrurantz joan ziran. Bein barruan egozala, Larrolak Muñuberi esandako guztia autortu eutsen. Garaidi asarratu zan, asarratu! Baina, beinik bein, Muñubek iges egin ebana egiztatu eutsen Larrolak egindako autortzeak.

Muñube aurkitu bearrekoa zan, bada! Ordurarte egindako urrats guztiek alperrekoak irudien. Inork ez ei ekian ezer eta!

Donostiara biurtu ziran bada, Egurmendiren etxean artutako zozpala aztertzeako asmotan, nonbait.

Egurmendiren etxea jagoten beste morroi bat itzi eban Garaidik. Urrengo goizean, goiz, berebiler Donostiara joan zan Egurmendi, Garaidiren morroiak jarrai

Donostian, Muñuberen gurasoen etxera artez-artezean joan eta sartu zan Egurmendi. Morroiak, a ikusi ebaneko, bera egoan lekura ariniketan joan eiten mezua bialdu eutson Garaidiri.

A guztia susmagarria zalakoan eta. Noiz edo noiz agertu zan Garaidi eta biok biotara, bera eta morroia, bertan begira gelditu ziran orduetan.

Alako baten, Muñube gaztea uste barik agertu zan, nasai-nasai gurasoen etxera etorrela.

Orduan, Garaidik bidera urten eta arpegia emon eutson. Muñube, barriz, Garaidi agertu zanean, zur eta lur geratu zan. Garaidi, bestetik, bereala itaunka asi jakon, ea non egon zan jakin guran, jakina.

Bestea, baina, guzurretan ebilkon! Garaidik, orduan, Larrola osagileak egindako utsa eta onen autormenaren barri izan baebala argitu eutson Muñuberi. Amundatarak non egozan eta zalako orratz a osabeak emon eutson itandukeran, bestea gorritu eta burua makurtu eban, errunda izan baleite lez.

Muñuberen erruaren isilpeko autormena emoten eban. Bien bitartean, Egurmendik, goian, Muñuberen gurasoen etxean ziarduan.

EUSKAL ASTEA

jan daualako, kume-galtze izaten dau. Gitxi batzutan, bizkien erditzea jazoten da.

Jaio ta illabete batzutara, artzaiñak artalderako diran bildotsak aukeratzen dauz. Ardi zaarrak ordezteko diran oneik, itxura oneko ta akatsbakoan artean aukeratzen ditu. Enparauak, azokan edo okeldegian saltzeko dira.


Bildots barik geratutako ardien esnea, "Mamia" ta gaztaiak egiteko erabilten dau artzaiñak. Uri andietatik ur dagozanak, jatetxeetan saltze ndabe mamia.

BESTE ABEREA

Ardiez gaiñera, beiak, zaldiak, auntsak, eta txarriak dira. Bei ta zaldiak mendian aske bizi dira, eta ugazaba noizean bein ikustera doa, Abere oneik, ugazabaren Burni-ezaugarriak narruan irarrita daukie. Azken aldiotan, beorak ugaritu dira gure mendietan, irabazpide ona diralako, zaintza gitxi eskatzen dabe-ta. Zaldi ta beiak, Auñamende, Andia, Urbasa, Entzia, Aizkorri ta Salbada mendilerrotan ugari dira.

Ardi "Latxak" dabezan artzaiñek txarritalde txiki bat be zaintzen dabe. Gaztaia egitean sortzen dan, gazura beste gaiekien naastuta loditzen dabez txarriok.

ARTZAIÑEN ESKU-LANGINTZA

Len, artzaiñek esku-langintzetan ziarduen, esaterako,  tak.

Saraitzu ta Erronkari'ko artzaiñek, labanaren muturraz, ezpelezko koillararak apaintzen ebezan.

Bestetan, artalde-zaintza luzean, astia emoteko ereskiñak egiten ebezan, esaterako: adarra, alboka, txilibituak etabar. Artzain batzuk zaarrak batez be, artulea iruten dabe, gero galtzerdiak-eta egiteko.

ARDI-ENDAK

Orain, len baiño artzain gitxiagok jarduten dabe, baiña artaldeak andiagok dira. Euskera bizirik dirauan tokietan, "Latxa" endako baiño besterik ez da ikusten. Orain 50 urte, artaldeak eun ardi ta aari bat edo bi eukazan. Gaurregun, artaldeek 350en bat ardi ta laupabost aari daukiez. Badira 500 buruko artalde ederrak be, baiña artzaiñen kopurura urritu da nabariki.

Euzkadi'n, geien ezagaturiko ardiak, "Latxa" ta "Rasa Nabarra" dira. "Latxa" endakoak, Ipar-sartaldeko Naparra'ko lurraldeetan ezagutzen dira, baita Andia, Urbasa, Entzia, Urkilla, Elgea, eta Gorbeia'ko mendi-inguruetan. Enda au, Euskalerriko da, edesti-aurreko aldiotan lur oneitan egokitua. Ardi onein ulea luze ta zakarra da. Enda au beste saldo batzutan sailkatu daiteke: "Mutur Baltza", "Mutur Gorria", "Mutur Pintoa", eta "Adarduna". "Latxa" ardiaren okela ez da "Rasa Nabarra"koa baizen ona. Aralar mendiko ta Araitz ibarreko ardiak besteak baiño txikiagoak dira. Mendilerroetara igoten diranai, "Mendiko ardiak" esaten yake, eta baserrietako artalde txikiak, "Etxeko ardiak".

Euzkadi'ko beste enda garrantzitsua "Rasa Nabarra" da. Ona emen enda onen bereiztasun batzuk: eguraldi ta alagune ezberdientara erraz oitzen dira, umegille on-onak izanik. Enda onen

geien ederretsia, okela da, bildots-azkuntzarako egoki-egokia. Esne-emoille naikoa ona, gaztaigintzarako egokia. Gaurregun ilteko zorian egoan Erronkari'ko gaztai bikaiñak, badirudi gora andia artu dauala,

Naparra'n, 1970 urtean	160.000 "Latxa" ardi egozan
	328.000 "Rasa Nabarra"
	50.000 "Merina"
Araba'n, 1970 urtean	165.000 ardi, oneitakoak 44.000 buru "Latxa" izanik.
Bizkaia'n, 1971 urtean	35.000 buru, "Latxa" endakoak

BESTE ABEREA

Udan, goiko alagunetara igoten diran bei geienak "Pirenaica" endakoa dira. Badira be, "Pardo Alpina" ta "Frisua" motakoak. Euskalerrri bertoko endakoak oso gitxi geratzen dira. 30.000 Naparra'n eta Gipuzkoa'n eun bat. Orain 70 urte, Euzkadi'n 150.000 buru ei'egozan, baiña beste endakoek eta naasteak arrixku andian ipiñi ditu. Ona emen, gure endari dagokiozan zeatz batzuk:

Auñamendi'ko eguraldi zakarrera oituta dagoz; arrunta, azkarrta, ta ibiltari onak dira, eta emoten daben okela guztiz ona. Enda onetako geien dagoan lekua, Naparroa'ko Aezkoa da.

Adolfo Staffe'k iñoanez, "La raza de vaca pirenaica actual, es descendiente de la raza vasca".

Mendietan aske alatzen diran zaldien artean, "Pottoka" mota dogu. Zaldi motz eta uletsua onen enda, ostendu-agiñean egoan, baiña 1969 urtean, Lapurdi'ko Sara ta Ezpeleta erriek "Reserva" edo zaintzagune berreizi bat sortu eben. Gaurregun, enda au geitzen doa, lortu daben arrera onagaitik.

Bada beste zaldi-enda bat, "Burguete" izenekoa, azta andikoa, anka sendokoa, eta eguraldi zakarrena ondo oitua.

ARTZAINGOAREN EMOKARIA

Ardien ekarriak, okela, esnekiak, artulea, ta narrua dira. Bereiztu bear dogu, "Rasa Nabarra" endaren garrantzitsuen, okela dala, eta "Latxarena" ostera, esnekiak.

Esnea eskuratzeke, artzaiñak ardiak jatsi bear ditu. Esku biak ustiatuz, aberrearen atzekaldetik egiten dau lan au. Len aipaturiko bildotsen buztan-mozketea, jaisketeari laguntzeko egiten da. Esnea, amazortzi litroko pertza baten biltzen da. Ontzi au, geienetan, galbanizatutako burdiñezko ontzia izaten da. jaisketea egiteko, artzaiña kukurio jarten da. Trebe danean, ordubete baten, 80-100 ardi jatsi dagikez. ARdi baktotxak egunean erdi litro esne emoten dau; Jaisketea egunean birritan egiten da: egunsentian eta illuntzean. Otsailla'ren amaieran asi, ta Garagarrilla'ren (Uztailla'ren) erdi alderarte, izan be. Gero, ardiak legortzen itziten ditu, jaisketeari uko egiñez.

Olan bildutako esnea, zakar, bedar, artulez etabarreko gaiak zikinduta dago, eta garbitzeko, irazki (filtro) batez egiten da. Irazki au, antxiña baten zurezkoa zan, eta abatzaren gaiñean ipiñita, irazketea egiten zan; gaur, zulodun burdiñezkoak dira. Len, igazi-gaitzat asunak landrak erabilten ebezan gure artzaiñek. Asun-orriok dabezan ule meeak zikinkerri guztiak atxikiten dauz. Onezaz gaiñera, asun-orriek daukiezan erremingarriek txastamen bereizia ei'emotsan gaztaiari. Gaurregun, artzaiñek eun mee baten bidez dalako iraziketea egiten dabe. Esnea irazterakoan, gatzagaia botaten dautsoe. Au, bildotsek daukien

OTSARAGINTZA EDO SASKIGINTZA

Otzaragillearen lantokia txikia da ta zur usaiñez beterikoa: au dogu baserritarren ekintza benetakoa. Batzutan, otzaragilleak ez dau beste lanik egiten orixe baiño, bere ogibide bakarra izanik, baiña bestetan, ordea, baserritarren neguko lana biurtzen da, urtaro onetan oiko lanak gitxiten diralako, eta augaitik, etxejoaunak etxeko atadian bein-beiñeko lantegia biurtzen dau. Gomutan dot, txikia nintzanean, Sondika'ko basetxe baten, Justo Beika'k, Mitxine'ko etxejoaunak, zelan emoten ebazan ordubeteak, atadian otzaragintzeari emonda, bitartean nik aren trebetasun arrigarria begiak zabalik ederresten nebala.

Otzaragintzarako, gero aipatuko dodazan tresnez gaiñera, labe bat bearerko da, baita alboan putzu bat be, lan-gaia urez inguratuta egon daiten. Otzaragillea bere aulkian jesarrita ikusiko dogu, bearreko zumitzak atontzen edo gertatzen, gero leuntzeko, benetako eio-lanari emon aurretik.

Oneixek dira darabillezan lan-tresnak: aiotza edo matxetea, aiztoa, eztena, azia eta egurrezko maillua.

Otzagailleak, lanerako sei edo zazpi urtebeteko gaztain txarak edo kimuak erabilten dauz. Au baiño zaarragoa ba'da, lanerako ez da ondo etorten. Gaztaiñondo bat moztuten danean, motzondotik edo orpotik sortzen diran kimu edo txara barriak, sei-zazpi urteak beteten dabezanean, orduan dira egokiak otzaragintzarako.

Kimu oneik neguan ebagiten dira, au da, Gabonillatik, Epailararte. Etxera ekarrita gero, putzu bateko uretan irauaten dabe, erabilate-ordurarte ezotasuna galdu ez dagien. Lanak eskatzen dauanean, uretatik ataraten dira zumitzak egiteko. Ondoko labe baten, burdiñezko aga batzuen gaiñean, egosketa ariña jasaten dabe. Sua labaren atzekaldean egiten da, eta, lengo egunetan sortutako ezpalakaz eta txiribil edo txirlorakaz egiten da, geienetan aurregunekoak.

Egur igarrak ez dau balio otzaragintzarako. Kimuak ez dira labera sartzen igartu daitezen, bere ezotasunean egosketa ariña jasan dagien baiño. Otzaragilleak, egurra lanerako egokitasuna edo templea artu daula uste dauanean, labatik ataraten dau. Egokitasun au ekiñaren-ekiñez ikasten dan gauza da.

Egurra edo gaztain-kimua labatik atarata gero, otzaragilleak egiten dauan lenengo lana, erdibitzea da. Orretarako, aiotza edo matxeteaz ozka bat egiten dautso eperdian, eta egurrezko mailluaz zirrikitua zabalitzen dau atzamarrak sartzeko beste, eta jarrain, eskuakaz egurra erdibitzen dau. Oneitariko zati bat, labara sartzen dau barriro, epeltasuna galdu ez dagian. Beste zatiari zumitzak ataraten dautsoz erdibitze lanari jarraituz, batzaz beste amar bat zumitz ataraten dauzala kimu -erdi bakotxatik.

Jakiña, erditik, edo egur-biotzetik sortutakoak zabalenak dira, eta otzaragilleak saiets-zumitzak esaten dautse. Azalekoak estuagoak dira, eta ostera, eio-zumitz izenaz ezagutzen dira. Zumitzok, zabalak eta estuak, azal zakarrekoak dira, et leuntzeko, otzaragilleak aulkian jesarrita, oinpekoari eragiten dautso, goiko ol-zatiak zumitza tinkatu dagian, eta orduan aziaren bidez, zumitzak leun biurtzen ditu. Azia deritxoan aitzo berezi au, mendia erabilten da be, piñuai azala kentzeko. Otzaragilleak, aulkian atontzen ditu baita be, uztaiak, edo otzaren goikaldeko erestuna. Uztai au geienetan gaztain-kimu meeaz egiten da. Otzara-mota batzutan, uztai onek esku-leku bi daroaz, alde

banatan bat. Leku batzutan kabela izenaz ezagutzen dira, eta bestetan buruntzaki izenaz.

Otzaragintzea, sorutik edo eperditik asten da, orretarako saietszumitzak erabilten dirala, eta gero eio-zumitzakaz bost edo sei bira edo inguru, bear dauan egiturea lortu arte.

Sorua eginda gero, Otzaragilleak eredu edo moldea gaiñean ipiñita, saiets eta eio-zumitzak erabiliz, otzareari nai izandako goibea emoten dautso, belauen artean eredu tinkatzen dauala.

Nai izandako goibea lortuta gero, saiets-zumitzen goiko muturra zorrotzen ditu, eta jarraian uztaia ipiflita, kabelak edo buruntzakiak egiten dautsoz, eta amaitzeko, uztaiaeren gaiñetik, saietsen zorrututako muturrak barrukaldera sartzen ditu.

Otzareari azkena emoteko, uztaia ta zulo txiki guztiak josi-zumitzakaz josten dira. Oneik, zumitz estu-estuak dira, eta geienentan emakumeek egiten daben lana da.

OTZARA - MOTAK

Neurri ta mota askotako otzarak egiten dira, eta aipamen zeatza egitea eziña dan ezkerro, ezagutuenean barri emongo dogu soillik.

KUEBANO OTZARA - Onen goibea irurogei ta amar zentimetrokoa da, Txuntxur edo kono ebagitako itxurakoa. Soruko erdi-lerro edo diametrokoa ogei ta amar zentimetrokoa da, eta abokoa berrogei ta amarrekkoa.

ARRAIN-OTZARA - Lauko luxekoa edo errektangularra da, irurogei ta amar luze ta ogei ta amar zabal. Bere izenak adierazoten dauanez, arriantsaltzailleek darabillez.

Arraintzaleak ontzian darabillena "millotarra" izenekoa da, eta erdian esku-uztai bat daukie eskulekutat.

OGI-OTZARA - Mota bikoa da. Bata laukoa, berrogei ta bost zentimetrokoa, eta labatik salmairaiño erabilten dana. Beste, lauko luzekoa, irurogei zentimetro luze ta ogei ta amar zabal. Ogia etxeetatik banatzeko erabilten dana, eskuleko bikoa da.


ESKU-OTZARA - Esku uztai bat erdian, bere neurriak ogei ta amabost zentimetro luze, ogei ta bost zabal, eta ogei ta amar goibekoa.

LEPA-OTZARA - Artoa, sagarrak, gaztaiñak etabar... eroatekoa. Baserritarrek bizkar-gaiñean darabille. Yoale edo kanpaiaren itxurakoa dira. Sorua laukoa da, eta aboa biribilla; iru neurrikoak dira.

ASTO-OTZARA - Abereen bizkarrean ipintekoak. Esnepegarrak eroateko egokiak, astoaren saietsari egokitu bear dira. Gure gudean erabilten ziran gudariak burruka-lekura janaria eroateko.

SATZA-OTZARA - Satza kortatik solora eroateko erabilten dana. Ustuketa arintzeko, sorua alde batetik orpoen bidez jauskorra da.

BURU-OTZARA - Etxekoandreek barazki edo ortuariak eroateko erabilten eben buruaren gaiñean ipiñita. Biribillak ziran, eta azokara bidean ikusten ziran etxekoandreek txairo-txairo ondo beteta buruan eroien, oreka edo dendua galdu barik. Gaurregun, berebilletan eroaten diran otzarai buru-otzara edo buru-saski izena emoten yake. Sorua laukikoa da berrogei ta irurogei arteko aldekoa, ogei bat zentimetro goibekoa, eta aboa sorua baiño zabalagoa.



SINISKERIAK

—Eta Mari, Amboto'ko Sorgiña?

—Mari izan da aztikeri guztien kopurua eta sorgin guztien erregiña. Aztien garaikoa eta Anboto'ko Damia. Zazpi kobeetan bizi da eta leize oien atakan, emakume ederra agertzen da; baña, auntzen oiñakin. Barrurago ba'da, orduan, animalien itxuran. Koba batetik bestera dijoanean, andere, itai, arbola, zalburdi zaratsu izango da; beti, ordea, suz ingurutatik... Lurpeetan du bere benetako egoitza eta erregetza; bere menpean ditu serbitzari Euskalerriko azti, sorgin eta jainko txiki guztiak... Berak darion aztikeri-usaiñ ori Paleolitiko garaikoa du, euskalduna eiztaria zan garaikoa; usain orren gañekoak, Neolitiko garaikoak dira, eiztaria artzai biurtu ondorengoak. Badirudi munduko indar guztiak bere mende dituela: eguzkia eta euria,


sua eta tximistak, txingorra eta arriak, giro ederrak eta txarrak... Sariak eta zigorrak berak zabaltzen ditu... Mandamentuak baditu; bi seme ere bai, Atarrabi eta Mikelatz, ona bat eta txarra bestea...

—Eta, marrazkidun koba zaarrak?

—Marrazkidun leizeak aaztuta zeuden, zeero baztartuta. Ez zekiten izan ziranik ere; baña, sorginkeriz betetako tokiak gertatu ziran, naiz-eta an barruko aztikerien arrastorik izan ez; bearrik ere ez beiak eta zaldiak arrapatzeko, ikulluan bait zituzten... Orduko asmoak, ordea, illun ba'da be, euskaldunen buruetan iraun zuten Mari'ren irudiaren inguruan, Neolitiko garaikoak erantsita, naaspilla eder batean.

ARRINDA'TAR ANES

KONDAIRA



—Zerekin arrapatzen zituzten?

—Sare, butroi, eta arpoiagaz. Ezurrezko arpoiak aspalditik agertzen dira kostalaldeko leizeetan eta aietatik sortu zuten euskaldunek, gerora, historian zear erabili izan zituzten balearrantzarako burnizko arpoiak... Gure erriko gauza guztiak sustrai luzeak dituzte...

NEOLITIKO GARAIA

—Beti iraun al zuten zrrapatzaille maillan?

—Millaka urteen poderioz, animali-ezitzeari ekin zioten, izugarritzko iraultza sortu-araziaz. Orrela sortu zan Neolitiko edo Arri Berriaren Aroa: aide batetik, mendiko animaliak ezi eta abereak sortu, basotik kortara ekarriaz; beste aldetik, luna ezi eta emaitzak ematera beartu, nekazaritza sortuaz. Bere kasa sortzen ziran

fruituak, bere garaietan ematera beartu lurra. Esate baterako, Palestina'n berez sortzen zan garia, norberak naiduenean eta tokian eman erazi lurrari... Orra bi iraultza, ondoren ikaragarriak ekarri zituztenak gizartean... Emendik aurrera okelea jateko ez du mendira eizera joan bearrik, ikulluan dauzka aragiak eta lurraren emaitzak eta igaliak, soloan. Bi iraultza auekin irugarren au ere agertu zan, buztina ezi eta zeramika sortu. Orra Neolitikoaren iru agerpen.

—Zuk esan dezue Neolitikoa Arri-Berri-Aroa dala eta ez dezue arririk aitatu be...

—Bai, arrazoi dezue; Neolitiko Aroak Arritik artu du bere izena, arrizko lanabesei leuntasun berezi bat eman ziotelako. Lanabesak eta langaiak, lenagoko arriekin egiten zituzten, sukariakin gienak; baña lan-gai oieri bukaera ohea ematen ikasi zuten; txukunagoak eta leunagoak egiten. Berritasuna ortik datorkio arriari. Era orretara, lau gauza onek dira Neolitikoaren ezau-garria: Arri berria, zeramika, animalien eziketa (artzaintza) eta lurrarena (nekazaritza): Arri-Berri, Zeramika, Artzaintza eta Nekazaritza.

—Iraultza aundia izango zan Neolitikoa.

—Iraultza asko izan ditu gizakiak bere historian zear eta Sua menperatzea ez zan txikiena izan, onura asko ekarri bait zizkion gizakiari. Esagutzen zuten sua; baña, menperatzen ez. Ori ikasi zutenean, orduantze argitu zitzaizen zeruzapaieko ortzia... Ez zan exikiagoa erruberaren, kurpillaren, erabilketa ikastea; egun argia zalan-tzarik gabea eta komunikabideetarako izugarritzko aurrerapena. Neolitikoan iraultza asko datoz batera eta gureraño eldu dira.

—Eta zer nolako basa-abereak izan ziran lenengo ezitakoak?

—Lenengo ta bat, otsoa. Otsotik lortu zuten txakurra, eizerako gizonaren laguna. Gero, lana-beiak, bere kumak ikulluan sartu eta an ezi. Ondoren, zaldia, zamak eramateko eta batetik bestera ibiltzeko laguntza, bizkorra eta indartsua... Ondoren basauntza auntz biurtu eta basurdea, urde; eurokin ikulluak eta kortak bete

OBETU DAGIGUN GURE EUSKERA (II)

IZAN ETA EGON

Izan aditza aberatsa da euskal barrutian. Guztiz aberatsa. Lau adierazkizun nagusi badituala dirausku Azkue aundiak. 1.- "Iñaki *ona da*" lokarri aditza, verbo sustantivo). 2.- "Iñaki *etorri da*" (aditz laguntzaillea, verbo auxiliariar). 3.- "Iñaki *etorten da*" (oi-aditza, gaztelerazko "soler"). 4.- "Iñaki *gose da*" (*euki* aditzaren esangurea) (Morf. Vasca, 629 orr.).

Esankizunik geiago be badaukala uste dot. 5.- "Kanpaiak *dira*" (joten dagoz). "Kanpai-otsa da" (entzuten da). 6.- "Euria, edurra *da*" (egiten dau). 7.- "Aita Bilbon *da*" (gaztelerazko "estar" aditzaren esangurea). 8.- "Atea *da*" (deika dagoz). "Atea izan ete *du*?" (deitu ete dabe?). Beste adierazkizunen bat be izan legike.

Eta ara: aspaldixotik onantza arerio zital bat agertu jako aditz oni. "Etxosteko atostetik" lez, ixil-ixilik eta iñori baimenik eskatu barik, lapur bat sartu da aren esparru luze-zabalean, eta triskantza itzelak egiten dabil, aren barruti oparotsua jaten eta jaten, eten barik eta aspertu barik jaten. Ondorenez, aditz berori dala bide, aurretikoengandik dator-kiguzan esakun jatorrak eta txairoak bazterreratzen eta gal-tzen daukaguz. Tamalgarria!

Izan aditzaren arerio eta lapur gaizto ori *egon* aditza da. Gure egunotan edonori entzuten jakoz onango esakuntza okerrak: "Gaur gaoizean Bilbon *egon naz*", "atzo Begoñan amaiketako mezan *egon nintzan*", "medikuagaz *egon naz*"...

Leen-leen, antxiña-antxiña ez dala, beste era onetara esaten zan beti: "Gaur goizean Bilbon *izan naz*", "atzo Begoñan amaiketako mezan *izan nintzan*", "medikaguana *izan naz*"...

"Nun *da* aita?", itandu bear genduke, eta gero onan erantzun: "Aita mendian *da*, ondartzan *da*, elizan *da*, tabernan *da*"... Gaur-egun, oster, beste onetara eta oker itaunduko

dautsue: "Nun *dago* aita?", eta onan erantzungo: "Aita ondartzan *dago*, elizan *dago*, tabernan *dago*..."

Gaztelerearen eragin aundia daukagu emen. Eragin ori nabariago agertzen dan beste ikasgai edo jakingai bat ez dakit izango dogun. Gaztelerazko "estar" aditza itzez-itzez euskeratetik dator oker eta galtze au euskerara. "Gaur Bilbaon *egon naz*" esatea ez da egia. Ez zara *egon*, ibilli egin zara, medikuagana izan zara, denda batzuk ikusi dozuz, liburutegi baten euskerazko liburuak arakatu dozuz... Ez esan, beraz, *egon* egin dozula. Ori ez da esakun jatorra auskeraz. *Egon* aditzak *egotez egotekoaren* esangurea dauko euskeraz, edo ezer egin barik egotekoa, edo norberaren egoera adierazotekoa.

Adibidez:

"Bilbon dago", au da, *egotez* Bilbon *dago*, edo Bilbon bizi da. "Gaixorik *nago*", "pozik *zagoz*", "entzunda, zutunik *dago*", eta abar.

Urte batzuk dirala, "Gure Aita zeruetan *zarana*..." esaten asi gintzazan, leengo "Aita gurea zeruetan *zagozana*"... -ordez. Aldakuntza au izan zanean, andrazko batek auxe esan eustan: "Zelan izan leiteke Jaungoikoari *zarana* deitzea, *zarana* bedarra etxera eroateko izanda?" Etxera bedarra eroateko *zarana* gauza bat da, eta *izan* aditzaren jokoa dan *zarana* (bizkaitarrentzat bearbada *zareana* jatorrago) beste bat, aregaz ezer ikustekorik ez daukana. Zalantzarik baga, orain askoz obeto esaten dogu orduan baiño.

Alan da guzti be, *izan* eta *egon* aditzen mugak gaur asko ezabatu eta galdu egin diranez, noiz *izan* eta noiz *egon* erabilii bear diran arau zeatzak emotea ez da erreza.

Jardunketa edo ariketa antzekoren bat lantxo onetara ekarteari mesedegarri deritxat, lerrokada baten esaldi *okerrak* eta alboan *zuzenak* ezarriz, irakurlearen argigarri.

OKER

He estado en Gernika.
¿Dónde está tu padre?
Está en el monte.
Está en misa.
Estará en la taberna.
Ya estaré con el médico.
Ayer tuve hambre.
El niño tenía frío.
Están llamando a la puerta.
Se oye el sonido de la campana.
Está tronando.

Gernikan *egon naz*
Nun *dago* zure aita?
Mendian *dago*.
Mezatan *dago*.
Tabernan *egongo da*.
Medikuagaz *egongo naz*.
Atzo *gosea euki* neban.
Umeak *otza eukan*.

ZUZEN

Gernikan *izan naz*.
Nun *da* zure aita?
Mendian *da*.
Mezatan *da*.
Tabernan *izango da*.
Medikuagana *izango naz*.
Atzo *gose izan nintzan*.
Umea *otz zan*.
Atea *da*.
Kanpai-otsa *da*.
Trumoi-otsa *da* (edo trumoiak dira).
Trumoi *oska dago* (Morgan).

AGIRREGABIRIA

EUSKALERRIA

ARTAUN

Dima'ko auzo bat da, baña guk orain ogei urte inguru nundik egoan here, ez genkian. Zuzenbideak orri baten eta gure seme-alabatxoak eskutik lotuta, Bilboko Erriberan Igorreraño autobus bat artu genduan eta lenengo Dimara ta gero Artauneraño oñez eldu giñan. Baña arañjo joerea asieratik esatea aipagarria da.

Sestao'ko guraso talde batek, ikastola bat sortaraztea lortu eben, aldi aretan gure inguruan euskal girorik ez egoan eta aurkitu genduan lenengo andereñoaren laguntzaz, umetxorik nagusienak, baserri batzutara eroatea lortu genduan.

Baserritarrak, umetxoak onartzeko alegiñak egin ehezan, euren bizi-modua gurea baño askoz desbardiñagoa zalako baño alan ta guztiz, poztasunaz eta dirurik gura hank artu ebezan.

Gure andereño, Itziar Manterola, Zeanuri'tik etorri jakun, ontasunez egundokoa zan. munduko maitetasun eta eroapen guztia, berak eukan. Guk iñoiz ez dogu aztuko eta beralakoa iñor barriro ez dot ezagutu.

Gure semearentzako billatu eban sendia. Artaun'en bizi zan. Oso onak zirala eta gure semearen adiñeko mutikoa ebela esan euskun, orregaitik uda aretan erritxo ezezagun aretara abiatu giñan.

Aurkitu genduan arrituta geratu giñan, a zan alderdi ederra! Andik eta Gorbeia begira. ibarrak eta mendiak,

olergi askotako zelai, zugatz eta baratzeak lilluratu ginduezan.

Amabiko bat baserrik osatzen dabe auzoa eta billatzen genbiltzan sendia beraz, errez aurkitu genduan.

Eurentzat naiz guretzat azter-bide barria zala uste dot, naiko lotsakorrek egon giñan danok baño laster euren berotasuna ta jatorriaz alkar-adiskidetasuna asi genduan.

Alkar-ulertzea be ez zan gauza erreza, gure seine-alabak orduan ikasten asiak ziran eta nik ogei berba baño ez nekiazan.

Eurek be gaztelaniera traketsa erabilten eben baño guztion borondateaz eta geiago ezagutu genduzanean jo ta ke ikasteari emongo neuskiola erabaki neban.

Urteak joan eta urteak etor'i, adiskidetasun au ez dogu galdu.

Artaun'en emondako egunak niretzat eta gure semearentzat batez be, oso garrantzitsu eta baliogarriak izan dira, an ezagututako jendea berak diñoanez, naiz eta batzuk **ez iñak dira.**

Euren eskuz, gure euskera maitatzen, zaintzen eta sakontzen ibilli, ibiltzen eta ibilliko gara.

Urtero lez, gabon-jaiak zoriontzeko an egon gara, al bado-gu eta Jangoikoak gura badau, urrengoetan be joango gara.

PALMI

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

EUSKERAZALEAK (Euskerea erabiltearen aldeko Alkartea) BATZAR NAGUSIA

Euskerazaleak Alkartea urteroko Batzar Nagusia egingo dau, bere Batzar-Etxea dan Larreategi'ko Kolon kalean, 14. 2n., eskoian, zezeillaren 29n. egunean, arratsaldeko 8'etan.

Batzar orretan urteko ekintza guztien barria emongo da, diru-arazo guztiak zeatz agertuko dira eta Alkartea Batzordean aldakuntzak egiteko aukerea eskiñiko da: Lendakaria, Diruzaiña eta maiko bi aldatzeko. Bazkide guztiak dira eskubidedun autagaiak eskintzeko.

LENDAKARIAK

ASAMBLEA GENERAL

La Asociación EUSKERAZALEAK celebrará su Asamblea General Anual en su domicilio social en Colón de Larreategui, 14, 2º, D" el día 29 de febrero de 1996, a las 20 h.

Como puntos del Orden del Día se establecen los siguientes: 1.- Exposición de actividades de 1995. 2.- Información económica referente al mismo año. 3.- Renovación de cargos de Presidente. Tesorero y dos vocales. Todo socio puede presentar candidaturas. 4.- Ruegos y preguntas.

EL PRESIDENTE